

NOR DA DR. HERNANDORENA?

Paris-en 1958an Bertsolari Txapelketa eratu zuen Dr. Hernandorena, larogeta zazpi urte beterik, oraindik bizkor bizi da Hondarribiako Higer faroaren inguruan. Hark argi egitekoa baldin bada, jarrai dezala luzaroan. Izatez, gorputzez ez handia, argala baina gihartsua, azalez beltzarana, buru galbarra baina argia, ongi jantzia eta bizia. Elkarrizketarako gizon atsegina benetan.

Euskaltzale paregabeari zahartzaro egokia etorri zaio. 1982an, Tauer osasunez ahuldurik zegoela jakiteaz Praga-raino joan zen euskaragatik hainbeste egin zuen atzerritar hura pertsonalki ezagutzearren. Igaz, 1984aren udaran, Tokio-ra eta han Suzuko Tamura-rekin izan zuen bazkalondoko ihardunaldia bere bizitzako oroitzapenik hoberenetakotzat gordezten du.

Zizurkilen jaio zen eta Zarautzen, 1920.aren inguruan, batxillerra egin ondorean abertzaletu, baina Zaragozan medikuntza ikasketak egiten ari zela jabetu zen gure kultura bereziaz. 25 urtekin Billabonan mediku izan ondorean Madrid-en bi urtez aritu zen dentista espezialitatea egiten, 1930ean Donostian kokatzeko. Errepublikan etorreran (1931) abertzale alderdian bazkidezea erabaki zuen. Handik laster, pare bat urterako, Eusko Gaztediko buru izendatu eta hortik 1933an Gipuzkoa Buru Batzarreko izatea.

1934an egin zen Aberri Egunez oinarriturik Euskal Herriari buruzko erreportaia filmatu zuen: hitzaldi, batzar, folklore

eta beste zenbait gaiez. Ordu erdiko filmaketa, garai hartarako hots handia atera zuena. Baina, euskaraz egin ezaren damua izan du geroztik. Roca-ren bidez katalanekin harremanetan jarri zen, hemengo kultura kanpora begira eman nahirik eta Paris-era eta Dublin-era joan zen pelotariek.

Ez zen geldirik egoteko jaioa, ez eta ere ekintza tipiekin konformatzekoa, eta ondorean, 3.000 metroko pelikula egin nahi zuen: toki berezi, monumentu, industria eta abar lehenagoko ohitura zaharretako folklore gaiari gehituz (historiaz eta musikaz zekitenei galdeak egin ondorean). Hori aurrera eramateko, 5.000 pezetako 12 letra ordaindu zituen bere boltsikotik. Emaitzak, Donostiako Kursaal eta Bilboko Buenos Aires-en ikusi ziren, arratsaldez eta gauaz jendez beterik bietan, hiriburu bakoitzean hiru egunez iraunaraziz. Enpresariei irabaziaren ehunetik berrogetahamarra proposatuz gaintu zituen bere zorrak. Gero, Tolosa, Bergara, Hernani,... Frankotiar nazionalak Donostian sartzean hartu eta erre zuten filma hura.

Hernandorenaren ustez, Euskal Herriaz lehenbiziko filmea zelako izan zuen hain harrera ona.

Garai batean euskaltzaletasuna pizteko itzaldiak ere eman zituen, besteak beste Bergara eta Azpeitian. Lehenak erderaz izan ziren, baina ihardunak berak erakutsi omen zion euskaldunei euskaraz hobe zela. Aurrerantzen beti euskaraz egiteko erabakia hartu zuen, bai etxean edo saloian, nahiz kalean.

Gerrak herbesteraturik ere, holako ekintza gizona ezin geldirik egon eta hara non bildu zituen mugazandiko bertso-laririk gehienak eta hemendiko hoberenak Bertsolari Txapelketa antolatzeko. 1957a iristean Ezpeleta eta Donibane Gara-zin hasitako eliminatoriak 1958an burutu zituen Urruñan eta Paris-en.

Paris-en, handikiro, Kolegioak eta Sorbona-ko Unibertsitatea komitatuaz. Horien ordezkariak eta han ziren elkarte euskadunenak zein bertan bizi ziren edo errefugiaturik zeuden euskaldunekin baliatuz berebiziko jaialdia prestatu zuen

mundu zabalari begira. Mundu zabalari begira diot, zeren egun horretan, aurrez zabaldu zuen propagandaren eraginez, komunikabiderik gehienak konprometiturik zeuden, bai egunkari eta bai irrati, eta hare gehiago, historian lehen aldiz agertu ziren bertsolariak telebistan. Saio hartako partaideak Basarri, Xalbador, Uztapide eta Mattin izan ziren.

Esan beharrik ere ez, suieta haren oihartzunak eragina ekarri bazuen, neurri batean hari esker mugazemendiko txapelketa antolaketak etorri ziren Euskaltzaindiaren izenean A. Irigoyenek eratuz.

Gaur egun, lau bertsolari haietatik txapeldun irten zen Basarri bakarrik bizi zaigu, Zarauzko Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak, aurten bertan merezimenduz omendua.

Han orduan zintaz grabatu ahal izan zena hotsaldi haren agiritzat jasotzen dugu aurreko orrialdeetan. Izango da oharrak egin beharrik, osorik jaso ez zelako eta jaso bera ere ongi transkribatu ote zenaren zalantzak ditugunez. Adibidez, ez bai dugu uste, Xalbadorrek bertso batean «artu» hitzarekin bi aldiz poto egin zezakeanik.

Dena dela, gure kezka ta guzi ere, historiarako lekuko dena hor dugu. Eta gure eskerrik beroenak agertu nahi dizkiegu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako arduradunei argitaratzeko utzi digutelako eta Dr. Hernandorena adiskide minari eman dizkigun argitasun guziegatik.

J. S. M.